



# **AUTISMOA HAURTZAROAN KOMUNIKAZIO-ARAZOAK**

93-94 eta 95-96 ikasturteetan, Pedagogi Aholkutebietako (PAT) Talde Multiprofesionalen (TP) programen inguruko koordinazio eta autoprestakuntza-bilerak egin dira. Bilera horiek Curriculuma Eratzeko eta Irakasletoa Prestatzeko Institutoko (CEI/IDC) Hezkuntza-Premia Berezien Arloko teknikariek koordinatu dituzte. Agiri hau aipaturako bileretan burutu den koordinazio-lanaren emaitza dugu, Bizkaiko eta Arabako Talde Multiprofesionalak (TMP) egindako Garapenaren Nahaste Orokortuei buruzko programaren arduradunen koordinazio-lanarena, hain zuzen.

Jarraian datozenek hartu dute parte:

BILBAO-REKALDEKO PAT: Carmen Babarro	GNO Programaren Arduraduna
BILBAO-DEUSTOKO PAT: Carmen Urquijo/ Carmen Martínez	GNO Programaren Arduradunak
BILBAO-TXURDINAGAKO PAT: Lourdes Ortueta	GNO Programaren Arduraduna
GERNIKAKO PAT: Yolanda Aliende/ Marisa Belaustegi	GNO Programaren Arduradunak
DURANGOKO PAT: M <sup>a</sup> Asún Gandarias/ Matxalen Solaun	GNO Programaren Arduradunak
GALDAKAKO PAT: Aurelio García	GNO Programaren Arduraduna
GETXOKO PAT: Maite Saenz	GNO Programaren Arduraduna
LEIOAKO PAT: Sara López/ Ana Martínez/ M <sup>a</sup> Jose Gardeazábal	GNO Programaren Arduradunak
SANTURTZIKO PAT: Isabel Galende	GNO Programaren Arduraduna
BASAURIKO PAT: Begoña López/ Elisabeth Arrien	GNO Programaren Arduradunak
BARAKALDOKO PAT: Jose Santos	GNO Programaren Arduraduna
ORTUELLAKO PAT: M <sup>a</sup> Jesús Beraza/ Begoña Marroquín	TMen arduradunak
GASTEIZEKO PAT: Carmen Nograro/ Conchita García	GNO Programaren Arduradunak
AMURRIOKO UDAL TALDEA: Jesús Bereziartua	Udal-Taldeko psikologoa
Koordinazioa:	
CEI/IDC. Curriculuma Eratzeko Institutua:: Alicia Saínz	GNO Programaren teknikaria.

# AURKIBIDEA

- I. Sarrera.....
- II. Lehen Azalpenak.....
- III. Nolakoak dira haur autistak? .....
- IV. Zein izan daiteke eskola-erantzuna? .....

  - Pedagogi inplikazioak komunikazioaren garapenean .....
  - Haurren gelak nola antolatu eta haur autistengan komunikazioa nola garatu.....

- V. Komunikazioa behatzeko tresnak .....

  - Haur-Hezkuntzako komunikazioa behatzeko eskala
  - Haurren autismoa baloratzeko Eskalak (CARS).....

- VI. Curriculum-Egokitzapena Haur-Hezkuntzan: Garapenaren Nahaste Orokortua duen ikasle bat
- VII. Eraskinak:
  - CEIko behaketa-eskalen adibideak.....
  - Behaketa-eskalen adibideak .....
- VIII. Bibliografia .....

# I. SARRERA

Ondoren aurkeztuko dugun lana GARAPENAREN NAHASTE OROKORTUAK (GNO) programako profesional guztiok, Bizkaia eta Arabako Talde Multiprofesionalak kide garelako, batera egin dugun gogoetaren emaitza duzue.

Lan honen bidez, HAURTZAROKO KOMUNIKAZIO-ESPARRUAN nahi izan dugu sakondu eta, batez ere, autismo-nahastea edo bestelako garapenaren nahaste orokorturen bat duten haurrek eremu horretan izaten dituzten zailtasunetan.

Horrelako ikasleek inguruneaz komunikatzeko edo ulertzeko izaten dituzten arazoei hezkuntza-erantzuna eman behar zaielako aukeratu dugu gai hau, Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleen arazo nagusiaren adierazpenik nabarmenenak besterik ez baitira horiek. Izan ere, gizarte-elkarreraginerako zailtasunean datza arazo nagusia.

Gizarte-elkarreragina eta komunikazioaren alderdi instrumentala, batetik, eta horiek gauzatzen diren agertoki naturala -hots, ikastetxea eta gela arrunta-, bestetik, elkarri erabat lotuta daudela ikusten dugu. Beraz, esparru horretan gauzatzen diren eguneroko egoerak aztertu ditugu. Haur-Hezkuntzako gela bat hartu dugu horretarako, bertako baldintzak aldatu eta ikaskuntza optimizatuko duten hobekuntzak sartzeko asmoz.

Gaur egun, autismoa duten haurrik txikienen artean, gehienek ingurune arruntaren arreta hartzen dute batik bat, eta horregatik aukeratu dugu, besteak beste, haurtzaroa aztergai nagusitzat.

Ilido honetan, ikasle autisten hezkuntza-premia nagusiei buruzko gogoeta eskaintzen diegu bai gela arruntetako tutoreei eta baita ikasle autistaren batekin lanean ari diren Haur-Hezkuntzako profesionaleei ere, guztiek lagungarri izan dezaten. Horretaz gain, zenbait iharduera ere proposatzen ditugu, horien bidez munduaren ulermena, abilezia kognitibo eta sozialak eta gizarte eta komunikazio-trebetasunak hobetzeko.

Lanaren lehen zatian garapenaren nahaste orokorturen bat duten ikasleen problematikaren hurbilketa teorikoa egingo dugu, batik bat komunikazioaren esparruari dagokionez.

Haurtzarolari buruzko Oinarrizko Curriculum-Diseinuaren (OCD) orientazioak kontuan hartuta, zenbait hezkuntza-estrategia iradokitzen ditugu, metodologi alderdiekin, gelaren antolamenduekin, iharduera-mota egokiekin eta abarrekin zerikusia dutenak, horiek guztiak baliagarri izango baitira hezkuntza-erantzuna optimizatzeko.

Eskola-egun batean haur-hezkuntzako geletan zer egiten den aztertuko dugu, eta autismo-arazoak dituzten hurrekin komunikazio-estrategiak lantzeko egokitzapenak proposatuko.

Zeregin honekin batera, komunikazioaren alderdiak behatzeko eta ebaluatzeko eskalak ere emango ditugu, haur-hezkuntzako profesionalek erabil ditzaten. Curriculum-Egokitzapen Indibidualizatu (CEI) bat ere sartu dugu adibidetzat, alegia, garapenaren nahaste orokortua izanagatik Haur-Hezkuntzako gela arrun batean eskolatuta dagoen ikasle bati buruzkoa.

## II. KOMUNIKAZIOA: LEHEN AGERPENAK

Sarritan, Haur-Hezkuntzako irakasleek ulermen-arazoak dituen ikasleren bat izaten dute tartean, hau da, gainerakoek bera ulertzeko eta berak gainerakoek esanak ulertzeko arazoak dituen haurren bat. Horra nola definitzen diren gehienetan halako egoerak: *"mutiko honek komunikazio-arazoak ditu"* edo *"neskato honek lengoaia-arazoa dauka"*.

Egoera jakin bat azaldu, definitu edo deskribatu nahi izaten duten esaldi orokor horien azpian hitzezko agerpen hutsari lotuta ez dauden hainbeste egoera izkutatzen dira. Hezkuntzako profesionalek "lengoaia-arazoak" deitzen diote Komunikazioarekin zerikusia duen hainbat arazori.

Dena dela, profesional horiek ikasleari zer gertatzen zaion zehatzago deskribatuz gero, ustez lengoaia-arazoa den horren atzetik askoz ere problematika handiagoa dagoela ikusten dute. Problematika horrek KOMUNIKAZIOAREN alderdi orokorragoekin du zerikusia. Hitzezko lengoaia arazo horien agerpenetako bat besterik ez da, nahiz eta nabarmenena eta azalekoena izan.

Komunikazioaren esparru zabalago hori nahi dugu, bada, azpimarratu, hitzezko lengoaiaren arazo askoren sorburua beste defizit batzuek edo hitzezkoak ez diren komunikazioaren bestelako alderdien garapenik eza direlako.

### **Zergatik interesatzen zaigu Komunikazioaren esparruan sakontzea?**

Komunikazioa egintza bat da, eta egintza horren bidez beste pertsona batzuei mezuak bidaltzen zaizkie. Gehienetan hitzezko lengoaia erabiltzen bada ere, ez da inondik inora erabil daitekeen bakarra. Adibidez, objektu bat seinalatuz norbaitek objektuari begiratzea lor dezakegu, haurtxo batek besoaz altxatuz har dezatela "eska" dezake, begiradaren bidez poztasun-sentimenduak adieraz daitezke etab.

Komunikazioak, edonola gauzatzen dela ere, ematen digu gizaki garen aldetik geure burua hezitzeko aukera. Garapen horren baitan, emozio, harreman edo gizarte-mailako alderdiak ezezik alderdi intelektualak ere sartzen dira. Hitz batean, komunikazioak ematen digu ikasteko eta pentsaera eta gaitasun sinbolikoa garatzeko bidea.

Beraz, gure iritziz, komunikatzea ez da hitz egitea bakarrik: hitz egin daiteke ezer ez komunikatu gabe. Gainera, haurrek hitzezko lengoaia-arazoak dituztenean espresio edo keinu bidezko bestelako komunikazio-erak bilatzen dituzte besteek uler

ditzaten. Bestalde, gure ingurune fisiko eta sozialak ere hitzezkoak ez diren hainbeste eta hainbeste aukera eskaintzen dizkigu komunikazioa garatzeko.

Komunikazioa ezinbestekoa da gizarteratzeko, behar-beharrezkoa baita gainerakoekin, ingurune fisikoarekin eta gauzeekin bizitzeko eta harremanak izateko.

Haur autistei edo garapenaren nahaste sakonak dituztenei dagokienez, berehala antzematen da arazo nagusia ez datzala hitzezko adierazpen hutsean. Honakoa da irakasleentzat benetan kezagarria: izugarri zaila dela haur horiekin komunikatzea, zer esan nahi zaien ulertaraztea, haur autistek defizit handiak baitituzte komunikazio-trebetasunetan.

## **Zein jokabide agertzen da haur txikiengan?**

Haur txikien garapenean komunikazio-jokabide ugari ikus daitezke, garapenaren hasiera-hasierako uneetatik agertzen direnak. Ondorengoak dira, besteak beste, aipatzekoak:

### ***1. Zerbait komunikatzeko asmoa***

Haurrek komunikazio-jokabide aniztasun handia garatzen dute txiki-txikitatik. Horien helburua gainerakoei zer nahi duten ulertaraztea da, keinuen bidez, zerbait nahi badute hatzamarraz edo eskuaz seinalatuz, begirada objekturen bati edo helduren bati zuzenduz, erakutsi edo lortu nahi duten zerbaiti hurbilduz etab. Agerpen horiek guztiek argi eta garbi erakusten digute haurrek badutela *“komunikatzeko asmoa”*, besteei zerbait ulertarazteko nahia eta, gainera, gozatu egiten dutela ingurunearekiko eta inguruneke pertsonetikiko harremanaren bidez gauzak ulertzen hasten direnean. Adierazpenen, oihuen, hitzen edo abestien bidez ere, *“norbaiti zerbait”* nahita komunikatzeko helburua duten uneak ikus ditzakegu, hau da, gogo-aldarte jakin baten, premiaren baten eta abarren berri eman nahi dutela, nahita eman ere. Haurraren inguruneak edo inguruko helduek seinale horiek egoki ulertuz gero, esanahiz betetzen dira arian-arian, eta horrela, gainerakoekin, ingurunearekin eta bertan gertatzen denarekin komunikatzea lortzen dute.

### ***2. Imitazio-jokabideak***

Haurrek inguruan dituztenek egindako gauzak imitatzen dituzte txiki-txikitatik. *“Bestea”* gizarte-interesa hartzen hasi dela eta ingurunean gertatzen dena ulertzen hasi direla erakusten du horrek. Bestalde, aipatutako imitazio-jokabideak -hala nola, lo egiteko eta txalo egiteko keinuak, inorekin abestea,

panpinari jaten ematea etab.- gizarte-elkarreraginaz hartzen dira batik bat, hots, helduekin edo gainerako hurrekin jolas egiten, eguneroko zainketen bidez etab. Horiek guztiek komunikazio-funtzioa dute, beraien gizarte-munduko egoerak ulertu eta besteekin elkar-banatzen laguntzeko baliagarri baitituzte.

### ***3. Komunikazio-keinuen erabilera***

Keinuak haurrak txikiagoak direnean hasten dira garatzen, oraindik lengoaia garatu gabe dutenean. Mugimendu-heltzea aurrera joan ahala, ingurunea ezagutzeko prozesuak eta gizarte-elkarreragina handitu egiten dira, eta keinu bidezko adierazpen askori esanahi jakin bat ematen diete. Haur txikientzat eta hurrekin dauden helduentzat keinuek eta adierapenek komunikazio-funtzioa betetzen dute, zer sentitzen duten, zer nahi duten, zer ez duten nahi eta zer ulertzen duten besteei ulertarazteko baliagarri diren aldetik. Hainbat keinu, adibidez, objektuak seinalatzea, helduaren eskua nahi duten horretarantz eramatea, norbaitek har ditzan besoak altxatzea etab. komunikazio-jokabideak dira. Jokabideok, komunikazio-funtzioa betetzeaz gain, aldeztu aurretik ematen dute etorkizunean gauzatuko diren gizarte-gertaeren berri.

### ***4. Begiradaren erabilera eta guztientzako arreta***

Begirada da komunikazio-jokabiderik eraginkorrenetakoa. Haurra objektu bati begira-begira geratu eta horren ibilbideari jarraitzeko gai denean eta pertsoneri arretaz begiratzen hasten denean ematen dira lehen urratsak. Begiradaren bidez, gizarte-elkarreragineko eta elkar-banaketako hainbeste eta hainbeste esperientzia hasten eta garatzen dira.

Honakoak dira nagusiki:

- **Bestearen jokaera arautzen du.** Begiradaren bidez emozioak edo hainbeste egoera, hala nola, gogoz kontra egotea, poza, arriskua, zer nahi duen etab. adieraz daitezke, eta bestearen jokaera edo ekintzak aldarazi.
- **Barne-aldarteak adierazten ditu,** hau da, gogo-aldarteak eta poztasunezko, beldurrezko eta abarreko emozioak.
- **Elkarri esperientziak adierazteko balio du.** Hots, begiradaren bidez egoera edo objektu batek zer sententzia eragin digun besteren bati jakinarazi diezaiokegu, eta besteak ere sententzia berdina bereganatu dezake gainera.



Haur autistak edo bestelako garapenaren nahaste orokortuak dituztenak aipagai ditugunean, kontuan hartu behar da horrelako komunikazio-jokabide goiztiarrak ez direla behar adina garatzen, distortsionatuta egoten direla edo ez direla agertzen. Beraz, hitzezko lengoaiari eta gizarte-harremanetan eragin larriak izango ditu hasiera-hasierako uneetatik.

### III. NOLAKOAK DIRA HAUR AUTISTAK?

Lehen autismo-agerpenak hiru urte bete baino lehen hasten dira beti, baina lehen urtearen aurretik ez dira oso nabarmenak izaten. Honakoak dira autismo-arazodun haurrengan ikusten diren ezaugarriak nagusienak: oso pasiboak izaten dira, ez dute ingurunearekiko inolako harremanik garatzen eta inguruan dituzten pertsonenganako eta gauzetarako sentiberatasun txikia agertzen dute. Hori dela eta, zenbaitetan gurasoek semea edo alaba gorra dela pentsatzen dute, esaten dizkioten soinuei eta hitzei ez baitie erantzuten.

Haur horien defizitak ez dira lengoaiaren ohiko garapen-jarraipidearekiko atzerapenak edo desbideratzeak, lengoia garatzen hasi baino lehenagoko oinarrizko komunikazio-trebetasunen alterazio larriak baizik. Kasu horietan hitzezkoa ez den komunikazioaren alderdi zabalagoek egiten dute huts, hala nola, komunikatzeko asmorik ezak, interesen bat besteei adierazteko gaitasunak eta gizarte-ingurunea eta inguruan dituztenen interesak, nahiak eta emozioak ulertzeko zailtasunak. Alderdi horiek guztiak, komunikazio-estrategia goiztiarrak eta hitzezko lengoia garatzen hasi aurrekoak direnak, haur-garapenaren hasiera-hasieratik daude aldatuta. Hona hemen zenbait adibide:

- Lehen hilabeteetako garapenean ezaugarri izan ohi diren aurre-hartze jarraipideak ez dituzte hartzen, ezta haurtxoengan ohikoak diren gizarte-onarpen eta atxikimendu motak ere (adibidez, norbaitek hartu behar dituenean besoak altxatzea).
- Haurraren ekintzak gero eta mugatuagoak eta zorrotzagoak bilakatzen dira. Ez dute gauzak aztertzeke jakinminik izaten, hori izaki lehen urteko azken hiruhilekotik aurrera haurren jokabidearen berezitasuna.
- Bestalde, deien eta eskarien bidez garatzen diren intentziorako komunikazio-jokabideak aldatuta egoten dira erabat edo ez dira gertatzen. Horrela, garapenerako berebiziko garrantzia duten zenbait jokabide funtzional, hala nola, jolasean egiteko eta imitatzeke jarraipideak eta komunikazio-keinuen eta ahoskapenen erabilera, ez dira lortzen edo galdu egiten dira gutxinaka-gutxinaka.
- Aurreko sintomekin batera, hainbatetan, haur autistarentzat eta inguruan dituenentzat oso asaldatzaileak izaten diren bestelako alterazioak ere agertzen dira: jateko arazoak, lo-falta, kitzikaberatasun ulertezina eta kontrolakaitza, pertsona eta leku ezezagunen beldur izatea etab.

Hitz gutxitan esateko, haur autistengan alterazio eta jokaera jakin batzuek batera agertzen dira:

- Alterazioak gizarte-elkarreraginaren garapenean
- Irudimen-alterazioak
- Komunikazio-alterazioak

### **Alterazioak gizarte-elkarreraginaren garapenean**

Besteen afektuarekiko eta kontaktu fisikoarekiko isolamendu, axolagabetasun edo abertsio handia izaten dute agerpenik larriena. Baliteke haurrak norbaitengana jotzea premia soil batzuek betetzeko, eta agian, kili-kili edo mugimendu-jolasak egiten disfrutatu egingo du, baina ia ez zaio kontaktu bisualik antzemango eta oso lotura urria garatuko du.

Beste batzuetan, gainerakoen hurbilketak pasibotasunez onartzen dituzte, baina ez dute inoiz harremanik hasten eta zailtasunak dituzte gainerakoei edozein interesen berri emateko. Beraz, ezin dute imitazioan eta elkarrekikotasunean oinarritutako harreman arruntik garatu.

Haur batzuek badira talde-ihardueretan partaide izateko gai eta ekiten diote besteekiko elkarrekikotasunari, baina berezia eta errepikakorra izaten da elkarrekikotasun hori. Ez dute besteen erantzunenganako interesik erakusten eta zaila egiten zaie gizarte-elkarreragin konbentzionalak nola arautzen diren ulertzea.

### **Irudimen-alterazioak**

Haur autisten edo bestelako garapenaren nahasteak dituztenen irudimengaitasuna narriatu egiten da, horien iharduera-eredua eta adin bereko haurren ohiko jolas-garapena desberdinak direla erabat. Haur autista askok jostailuak erabiltzen ditu, baina "*benetan etekinik atera gabe*", sentsazio hutsak bilatzeko manipulatu ditu edo jolasa estereotipia bihurtzen. Sarritan, objektuak eta jolasak manipulatu besterik ez ditu egiten; ez da aritzen bestelakoetan, hau da, errealitatea imitatu eta iharduera sinbolikoagoetara iristeko sormena eta irudimena eskatzen duten jolasetan.

Dena dela, haur horietako askok, hezkuntzaren bidez eta "jolasean irakatsiz gero", aurrera egin dezake eta jolasen antzeko ihardueretan parte hartu, benetako objektuak edo miniaturako jostailuak erabiliz. Halakoetan ere, ordea, alterazioak ikusiko dira: sortu dezaketen jolas-kopurua mugatu egiten da, etengabe errepikatzen dituzte eta zailtasunak izaten dituzte fantasian oinarritutako jolas konplexuagoi ekiteko. Era berean, ez dute ia besteekin batera iharduerak burutzeko interesik erakusten, eta zailtasun handiak dituzte gainerakoen pentsaerak, interesak eta emozioak ulertzeko.

## **Komunikazio-alterazioak**

Aurrerago aipatu dugunez, haur autistek, oro har, hitzezko lengoaian nahiz hitzezkoa ez den lengoaian komunikazio-narriadura kualitatiboa agertzen dute. Haur txikien komunikazio-garapenaren jarraipideak kontuan hartuz gero, aurreko kapituluan aipatu dugunez, **hitzezkoa ez den komunikazioa** txili-txikitatik dago aldatuta. Ondorengo alterazioak ikusten dira:

- **Komunikatzeko asmoa.** Orokorrean, ez dute izaten komunikatzeko interesik eta ezta besteek hasitako ekintzei erantzuna ematekorik ere. Haurrak komunikazioari ekiteko edo eusteko interesa duela jakinaraziko diguten adierazleak oso gutxitan ikusiko dira, eta ez dira gainera hitzezkoak izango (aurpegiaren espresioa, keinuak...).
- **Komunikazio-keinuen erabilera funtzionala.** Komunikazio-nahaste larriak ikasleek alterazioak dituzte seinalatzerakoan, zerbait lortzeko eskutik heltzerakoan eta antzeko komunikazio-keinuen bidez zerbait ulertarazi nahi dutenean. Nahastea oso larria izanez gero, ez dute inolako keinurik egiten edo, eginez gero, testuinguru desegokietan eta lortu nahi duten komunikazio-helburuaz bat ez datozela burutzen dituzte.
- **Begiradaren erabilera eta kontaktu bisuala,** edonolako komunikazio-ekintzatan garrantzia handikoa izaki, dugu aldatutako beste alderdi bat. Zaila egiten zaie komunikaziokideari begira-begira egotea, ez dute aurrez-aurre begiratu nahi izaten eta urrunera begiratzen dute. Ez dute komunikazioari ekiteko aukerarik ematen, eta norbaitek zerbaiti arretarik txikiena ere jartzea galerazi egiten dute.

***Hitzezko lengoia*** lantzerantz iritsi diren haurrek beranduago garatzen dituzte, oro har, bai hitzezko lengoia eta baita lengoaiaren alderdi funtzionalak eta pragmatikoak ere. Hau da, lengoaiaren ulermena eta erabilera aldatuta egoten dira harreman-testuinguruaren baitan. Behar besteko mintzamen-gaitasuna dutenean, honakoak izaten dituzte ezaugarriak: ekolalia edo besteek esaten dutena oihartzun gisa errepikatzea, izenordeak aldatzea edo nahastea eta hitzak, esakerak edo elkarrizketak errepikatzea.

## **IV. ZEIN IZAN DAITEKE ESKOLA-ERANTZUNA?**

Haur autistek gainontzeko haur txiki guztien oinarrizko premia berberak dituzte, baina badituzte beste hezkuntza-premia berezi batzuek ere. Hau da, beraien hezkuntza-egoerari zenbait egokitzapen egin behar zaizkio ikaskuntza eta gainerakoekiko gizarte-harremanak bultzatzeko.

Haur autisten zailtasunik nagusienak komunikazioaren eta gizarte-ulermenaren esparruan daude kokatuta, hau da, zaila egiten zaie gainerakoek mundua ulertzea. Ildo honetan, hainbat estrategia garatu behar da nahitaez, batzuek espezifikoa eta beste batzuek gainerako ikasleekin ere orokorrean erabiltzeko modukoak. Horrela, komunikazioa eta ingurunearen ulermena ahalik gehien suspertuko dira.

### **PEDAGOGI INPLIKAZIOAK KOMUNIKAZIOAREN GARAPENEAN**

Haurtzaroko Oinarrizko Curriculum-Diseinuak (OCD) iharduera-oinarri eta metodologi estrategia orokor batzuek proposatzen ditu. Abiapuntu baliagarria da benetan, aztergai dugun arazoaren komunikazio-alderdiak garatzeko: haur autisten edo bestelako garapenaren nahaste orokortuak dituztenenak, hain zuzen.

Haurtzaroko OCD hiru esparrutan dago antolatuta. Komunikazioak eta Irudikapenak osatzen dute lehenengoa eta komunikazio-alderdi guztiak hartzea du helburu, bai hitzezko lengoaiari lotutakoak eta baita hitzezkoak ez diren bestelako komunikazio-erak ere. Hainbeste adierazpen-era sartzen dira esparru horren baitan, hala nola, gorputz-lengoaia, keinuen bidezkoa, hitzezkoa, musika bidezko adierazpena, gorputz-komunikazioa, adierazpen artistikoa, ikusmen bidezko komunikazioa etab.

Norbanakoaren eta ingurunearen arteko harremanak hobetzen laguntzea du esparru honek helburu. Hainbat komunikazio-era, keinu, hitz... erabiliz, haurtzaroan zehar komunikazioaren eta harremanen arloko trebetasunak garatu nahi ditugu.

Haurtzaroan, ikuspegi zabal batetik bideratzen da Komunikazioaren esparrua, ezin baitiegu hitzezko komunikazioari eta emaitzei bakarrik begiratu, komunikazioa gauzatzen den prozesu guztia hartu behar da eta kontuan. Haurrak keinuen, begiraden edo hitzen bidez komunikatzen direnean, komunikaziokide baten edo batzuen arteko komunikazio-elkarreraginen eremuan gauzatzen da komunikazioa, eta lengoaiaz kanpoko testuinguru edo errealitate jakin batean da sortzen. Komunikazio-prozesu guztietan ondorengo funtsezko osagaiak hartzen dute parte:

- ← **Komunikaziokideak** edo gure mezuaren hartzaileak.
- ← **Egoerak**, une jakin batean (iraganean, orainaldian edo etorkizunean) eta leku zehatz batean (hemen, hurbil, urruti...) egokitzen direnak.
- ← **Pentsaera-prozesua** edo komunikazioaren edukina lantzea.
- ← **Komunikazioaren helburua** edo komunikazio-mezua besteari helarazteko asmoa.

Haur autistek edo bestelako garapenaren nahaste orokortuak dituztenek bai prozesuan edo gainerakoei zerbait komunikatzeko asmoan bai azken emaitzean alterazioak dituztela kontuan hartuta, garapen pertsonalerako eta gizarte-elkarreraginerako aukerak eskainiko dizkien komunikazio-estrategien garapena areagotu egin behar da.

Ondoren, helburu horiek lortzen lagunduko diguten metodologi eta antolamenduzko inplikazio orokor batzuek aipatuko ditugu.

## **Metodologi eta antolamenduzko inplikazio okorrak**

Haurtzaroan komunikazioa garatzeko estrategia orokorrak dira haur autisten hezkuntza-interbentzioa bideratzeko egokienak. Hona hemen laburbilduta:

- ☞ Haur-hezkuntzan haurren ekimena, autonomia eta inplikazio aktiboa sustatzearen alde egiten da, ezagutzak beregana ditzaten. Ekintzen eta jolasen bidez eta inguruan duten munduaren zuzeneko manipulazioaren eta araketaren bidez ikasten dute haurrek.
- ☞ Haurrek badakite egiten eta ezagutzen. Horrek behar du izan hezkuntza-interbentzioaren abiapuntua, horrela hezitzaileek benetan “entzun” eta aurretiazko ideiak kontuan hartuko baitituzte ikaskuntza berriei ekin baino lehen.
- ☞ Haur bakoitza gelako curriculumaren arabera zertan den jakin behar da: zer ezagutzen eta dakien ondo, zein trebetasun dituen finkatzeke eta zer nolako languntza zehatzak behar dituen ikaskuntzarako.
- ☞ Proposatuko zaizkien zeregin eta iharduerek nolabaiteko zentzua izan behar dute haurrentzat, interesa piztu behar die eta beraien jakinminari erantzun.
- ☞ Gela gizarteratzeko lekua da, haurrik gehienek bertan finkatzen baitituzte familiaz kanpoko harremanak. Helduek komunikazioa garatzen lagundu behar diete, baina gainerako haurrak ere behar-beharrezkoak dira

helburu hori lortzeko. Beraz, harremanen arloa arreta handiz zaindu behar da, irakasleen interbentzioaren helburu nagusietakoa behar duelarik izan.

- ☞ Gelako giroa eta antolamendua ikasle guztien ezaugarriei egokitu behar zaie. Beraz, guztiak ondo hartuko dituen ingurunea eta berdinen arteko lankidetzaren nagusi izango dituen giroa sortzea da irakasleen zeregina.

Estrategia orokor horiek dira haur autisten hezkuntza-interbentzioaren abiapuntua. Dena dela, irakasle-taldeak baloratu beharko du zer nolako egokitzapenak egin behar diren haur horiek komunikazioaren esparruan dituzten premia bereziei erantzuteko. Ondorengo alderdiak hartu behar dira nagusiki kontuan:

**1. Garapen-maila ezagutzea.** Komunikazio-nahasteak dituen haur bakoitzaren garapen-maila ezagutu behar da, irakasleari ikaskuntzen plangintzaren inguruan erabaki egokiak hartzeko lagungarri izango baitzaio.

- Beharrezkoa da ikasleak zein komunikazio-gaitasun eta estrategia erabiltzen duen ebaluatzea: nola komunikatzen den, norekin, noiz etab. ikustea. Komunikazio-gaitasunak ebaluatzerakoan garrantzitsua da haurra ingurune anitzetan, hainbat pertsonarekin, objektuekin eta ikaskiderekin dagoela *behaketak egitea*.
- Ikaslea zer egiteko gai den eta zer ezin duen egin aztertuko da, nola lagun diezaiokegun ikusteko.
- Profesionalak, haurrak uler diezaion, nola eta zenbateko konplexutasunez komunikatu behar duen jakitea.
- Iharduerak eta emango zaion informazioa eboluzio-uneari egokitzea.

- ikaslea zer egiteko gai da
- zer ezin du egin
- zer nolako laguntzak behar ditu horretarako

**2. Antolamendua, metodologia eta iharduerak.** Haur-eskolan egin ohi direnak oso egokiak dira elkarreraginekin, gizarte-ulermenarekin eta ingurunearekiko harremanekin zerikusia duten alderdiak garatzeko, hau da, Komunikazioa zentzu zabalean garatzeko.



Haur bakoitzaren mailari begira egin beharreko egokitzapenak gelaren antolamenduaren baldintzapean egongo dira. Haur autistak edo garapenaren nahaste orokorturen bat edukitzeagatik Komunikazioaren esparruan arazoak erakusten dituzten haurrak daudenean, gelaren, ihardueren eta ikasleen antolamenduak hainbat estrategia jakin garatzeko egokia behar du izan. Estrategia horien helburua ikasleak inguruneaz komunikatzea, inguruneko informazioak ulertzea eta barneko gogo-aldarteak eta oinarritzko premiak adieraztea izango da.

Espazioak behar bezala ordenatzea, eguneko ihardueretan iraunkorra izatea, ikasleen arteko elkarreragina etab. ikasle guztien onerako izango dira, baina batik bat, haur autistek egingo die mesede.

Horretarako, bereziki haur autistek dagokienez, garrantzia handikoa da:

### **Gelako espazioa eta iharduerak antolatzea**

- Gelako espazioan egokitzapenak egitea. Iharduera jakin batzuek lantzeko guneak ezarriko dira, iharduera-txokoak osatuko dituztenak.
- Gelako eta ikastetxeko gune bakoitzean erabiltzen diren materialak erraz eskuratzeko moduan ordenatzea. Une eta gune bakoitzean burutzen ari diren ihardueren berri emango dien adierazleak ere erabil daitezke, zer egin behar duten jakingo baitute horrela. Horiek guztiak autismoaz oso bestelako zailtasunak dituzten ikasleentzat ere lagungarri izango dira.
- Ikusizko gakoak ere baliagarriak izaten dira haur autistentzat bai gizarte-ulermenterako, bai bere kasa moldatu ahal izateko eta baita ikaskideek horietako haurren batek erabiltzen dituen keinuak gogoan hartu eta erabil ditzaten ere. Ikusizko gakoetan, egun edo aste jakin batean zein iharduera burutuko den adieraz daiteke. Haur guztiek, gainera, parte-hartze aktiboa izan dezakete, batik bat garatu ohi den egitasmoaren inguruan alde aurretik aldaketak sortuz gero. Honako ikusizko gakoak erabil daitezke:

- benetako objektuak eta horien argazkiak
- piktogramak, marrazkiak edo sinboloak
- iharduera-txartelak, agendak etab.

- Gelako zenbait une distrakzio-elementu asko ez dituztela egokitzea, bertan arreta-defizita duten ikasleak errazago konzentra daitezten.
- Ikasle autista askok iharduera-bitarteetan moldatzeko arazoak izaten ditu. Beraz, gelako gune bat tarteetarako txokotzat egokitu daiteke, hurrengo

talde-iharduera arte bertan zain egon daitezten, eta/edo iharduera batzuek ere proposatuko zaizkie bat aukera dezaten.

### **Ikasleen elkarreraginak**

Haur-Hezkuntzako geletan ohiko lan egiteko moduz, premia guztiei erantzutea eta haur bakoitzari ikasteko behar duen laguntza ematea ahalbidetzen da. Haur-gelako dinamikaren baitan, talde barruan arreta individualizatua eskainiz eman daitezke banakako laguntzak, eta baita talde-handietarako ihardueretan egokitzapenak eginez ere.

Haur autistekin metodo aktiboak erabiliz gero, taldetxo heterogeneoetan lan egiten ari direla lankidetzak-ereduak gara daitezke. Gela elkarreragina sustatzeko moduan antolatuko da, eta irakasleak beharrezkoa denean besterik ez du parte hartuko.

Gela-proposamena egiterakoan, ondorengoak ikusi behar dira: zein elkarreragin-era erabili behar den, hau da, indibiduala, talde txikikoa edo talde handikoa, zein egokitzapen-mota egin behar den eta zer nolako laguntza edo arreta mota eskatzen duen ikasleak aurreko hiru taldekatzeetan. Irakaskuntza eta ikaskuntza ihardueretan, ikastetxeko ingurune ugari erabili beharko da, ahalik eta partaidetza handiena lortzeko. Hona hemen kontuan hartu beharreko zenbait aholku, haur autistek gainerako haur eta helduekiko harremanak hobe ditzaten:

- ❑ Talde txikiak egitea
- ❑ Ihardueren araberako taldekatze malguak egitea.
- ❑ Ikaskideei harreman-jarraipideak proposatzea. Gelan giro egokia sortu behar da, ikasleek elkarren arteko desberdintasunak ezagutzuz, ulertuz eta errespetatuz, adiskidetasuna eta elkar-laguntza suspertu daitezten.
- ❑ Bai irakasleengan bai ikasleengan iraunkortasuna bilatzea. Iraunkortasun horren ondorioz, hobeto ezagutuko dute elkar eta harremanak sustatu egingo dira.

**3. Ikastetxean parte hartzen dutenen elkarlana.** Tutoreak ezezik, ikastetxeetan badira hezkuntza-laguntza lanak burutzen dituzten bestelako profesional ere: aholkularia, laguntzaileak, laguntza-irakasleak... Profesional horiek ahalmen guztiak erabiltzen dituzte ikasleen, eta bereziki zailtasunik

handienak dituztenen, oinarriko gaitasunak garatuko dituzten baldintzak suspertu, indartu eta sortzeko.

Komunikazio arazoak dituzten haurrak daudenean, profesional horiek guztiak haurraren eta ingurunearen arteko bitartekari lanetan aritzen dira. Gizarteratze eta ikaskuntza-premiei erantzuna ematen saiatzen dira, eta horretarako, espazioak eta denborak egituratu eta haur bakoitzaren ulermen-mailari eta elkarreragin-estiloari hurbildu eta egokituko zaizkien iharduerak proposatzen dituzte.

Gelan banaka nahiz talde handietan burutzen diren ihardueretan, tutorea da hezkuntza-zeregina planifikatu eta aurrera eramateko arduradun nagusia. Komunikazio-nahaste larriren bat duten haur guztiek ez dute etengabe laguntzaile, laguntza-irakasle edo aholkulariren bat behar. Dena den, gehienetan, haurrek behar dituzten baliabideei buruzko balorazioa egin ondoren, zenbaitetan tutoreaz besteko profesionalen baten elkarlana eta laguntza izan dezatela erabakitzen da, hau da, laguntzaile, aholkulari, laguntza-irakasle edo bestelakoena.

Honakoak dira komunikazioaren esparruan laguntzen duten langileen egitekoak:

- ❑ Haurraren aldamenean egotea, taldeko gainerako hurrekiko elkarreragina bultzatzeko.
- ❑ Dinamizatzea eta bitartekari lanak egitea, haurrak proposatutako zeregina egin ahal dezan. Horretarako, inguruan zer gertatzen den ulertarazi eta ahalik eta autonomiarik handiena emango zaio.
- ❑ Behatzea, aztertzea eta ebaluatzea. Ondoren, gainontzeko profesionalekin batera, egoera guztietarako iharduera egokiak planifikatuko dira: talde handikoak, txikikoak, txokoak, indibidualak...
- ❑ Laguntza zehatzak ematea, bai fisikoak eta baita kognitibo eta afektiboak ere, bai zereginak edo ikaskuntza gauzatzeko eta baita horien asimilazio-prozesurako ere.

# Haur-gelaren antolamendua eta Komunikazioaren garapena haur autistengan

Ondoren aurkeztuko dugun proposamena haur-eskoletan nahiko hedatuta dagoen ihardun baten azterketatik abiatu da. Hau da, zereginak iharduera-gune zehatzetan edo "TXOKOETAN" banatzeko ihardunetik.

Haurren gela-eredu baten antolamendua hartuko dugu abiapuntutzat. Bertan egin ohi diren zereginak aztertuko ditugu eta haur-hezkuntzako ikastetxerik gehienetan egunean zehar egiten diren "errutina" batzuek aukeratuko.

Egoera hipotetikoa dugunez mintzagai, gure asmoa ez da benetako eskola-eguna nola antolatu behar den esatea, bertan gertatu ohi diren egoeren adibideak azaltzea baizik. Gehienei adibidetzat, egiten dutenaren isladatzat edo zer egin dezaketen iradokitzeke balioko die.

Zeregin, espazio edo "errutina" bakoitzean zer iharduera-mota egiten den aztertuko dugu, nola egokitu ikusteko eta haur autistek behar dituzten laguntzak sartzeko, horrela aipatu diren helburuak lor ditzaten.

Ondorengo eskeman oinarritu gara iharduera-proposamena egiteko:

## **GELA ARRUNTAREN erantzuna**

***GELAKO ESPAZIOA, DENBORA ETA IHARDUERAK EGITURATU EGINGO DIRA***

***GELAN ERRUTINAK EDO OHIKO IHARDUERAK FINKATUKO DIRA***

***GELAKO ZEREGINAK EDO IHARDUERAK AZTERTU EGINGO DIRA***

***IHARDUERAREN UNE BAKOITZEAN EGOKITZAPENAK ETA LAGUNTZAK SARTUKO DIRA***

Haur-gelarik gehienetan eskuarki egiten diren iharduera eta une adierazgarriak bereiz ditzakegu. Hona hemen zenbait iharduera adierazgarri adibide gisa.

### IHARDUERAK EDO ERRUTINAK

Sarrerak	Talde	Txoko	Elikadura	Komuna	Jolasordu	Txoko	Psikomotrizitatea	Talde
		Jolas sinbolikoa  Kognizio				Irakur- idazpena  Artistika		

"Errutina" edo ohiko iharduera horietako bakoitza aztertuko dugu, autismoaren edo bestelako garapenaren nahasteen ondoriozko komunikazio-arazoak dituzten hurrei egokitzeko egin behar diren aldaketak sartu ahal izateko. Iharduera bakoitzean ondorengo urratsei jarraituko zaie:

#### ⌘ IHARDUERA DEFINITU EGITEN DA

- *Zer landu ohi da egoera honetan.*
- *Zein da egoera honen helburua hurrengan.*

#### ⌘ ZER LANDU BEHAR DA HAUR AUTISTEKIN EDO GNO-AK DITUZTENEKIN

- *Zein helburu finkatzen da ikasleentzat egoera honetan.*
- *Zer landu behar da egoera honetan.*
- *Zer nolako komunikazio-estrategiak garatu behar dira egoera honetan.*

#### ⌘ ZER NOLAKO LAGUNTZAK BEHAR DITU

- *Zein alderdik bultzatzen ditu komunikazio, ikaskuntza eta integrazioa gelan.*
- *Iharduera nola burutu hurrekin, zer nolako laguntzak erabiliz: materialak, arreta etab...*
- *Hurrari nola zuzendu, nolako jarreraz etab.*

# 1. SARRERAK

Eguneko lehen topagunea da. Alde batetik, haurrak etortzen dira, bakoitza bere esperientzia eta guzti (beraiek, familiako pasadizo eta gertaerak, gelara joateko gogoia, beldurra etab.), eta bestetik ikastetxea, ezagutzeko, jolas egiteko eta gizarte-garapenerako aukera guztiak emango dizkiena. Une horretan, irakaslearekin, gainerako ikaskideekin, gelarekin, materialekin, jolasekin eta espazio horretan garatuko diren iharduerekin bat egiten dute. Horregatik da, hain zuzen, elkar-agurtzeko une egokia, zer gertatu zaien kontatzeko, esperientzia eta sentimenduei buruz hitz egiteko, autonomia eta ordena ohiturak hartzeko eta abarrerako une ezin hobea.

## ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

*Agurrak:*

- Sartzerakoan agurtzea, gainerako haurrak agurtzea.
- Era pertsonalizatuan agurtzea, berari bakarrik zuzenduta.
- Agurtu dezala eskatzea.
- Berez agurtzen laguntzea.
- Agurra adierazten duten keinu naturalak erabiltzea.

*Ohiturak:*

- Jazteko, gelako materialak ordenatzeko...
- Bere marrazkia esekitokian, karpetan, mahian... ezagutzea.
- Bere marrazkia, izena... seinalatzea edo esatea.
- Ikusmeneko jarraipideak ematea, marrazkiak edo koloreak erabiliz.
- Haurrek ulertzeko moduko hitzezko adierazpenak ematea.
- Hitzeko lengoiaz batera keinu errazak azaltzea.

## ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Berari zuzentzen gatazkezian adierazpen eta keinu naturalak erabiltzea.
- Ikusizko laguntzak erabiltzea: marrazkiak, argazkiak...; bainugelak, esekitokian, karpetan etab.
- Lengoaia erraza eta argia erabiltzea.
- Modelaketa, ikastea nahi duguna bere aurrean egingo dugu.
- Behar-beharrezkoa da gainerako haurrekin egotea, besteak imitatu eta haien ekintzak egin ditzan.

## 2. ELIKADURA Esne-banaketa

Elikadura-iharduera hori oso gogokoa dute haurrek eta jolas eta gizarteratze zentzuaz egiten da gainera. Helburua ez da elikatzea bakarrik; iharduera honen bidez gainerakoekiko gizarte-harremana bultzatzea baizik eta, horretaz gain, oinarritzko ohiturak eta ikaskuntzak sozialak eta funtzionalak hartzen laguntzea. Haurren afektibotasunetik hurbil-hurbil daude iharduera horiek oso esanguratsuak izaten dira beraientzat eta hainbeste eta hainbeste gauza ikasten dute: mugimen-ohiturak; hainbat tresna manipulatzeko: edalontziak, koilarak; zenbait kontzeptu: esnea, banatu, elkarren artean banatu, gehiago dago, gutxiago dago...; itxaroteko eta txanda hartzeko ohiturak eta denbora-nozioak. Gainerakoekin lankidetzan ere aritzen dira, gauzak elkar-banatu egiten dituzte eta, azkenik, jaten eta iharduera hori gainerakoekin jolas-egoera baten baitan egiten gorputzez eta psikologikoki atsegina hartzen dute.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Esnea eskatzen irakatsi behar zaio: hitzez, keinuz, adierazpenez edo begiradaz.
- Egoeraren argazki edo marrazkiren bat identifikatzen irakastea: adib. esne-kaxaren argazkia, edalontziarena...
- Esnea edo edalontzia beste haurren artean banatzea.
- Beste haur batek esnea emateko edalontzia ipintzen irakastea.
- Itxaroteko, alternantziarako eta txanda hartzeko ohiturak garatzea.
- Bi egoera edo gehiagoren artean aukeratzen irakastea: Cola-Caoaz edo Cola-Caorik gabe.
- Zerbait gogoko duela edo ez duela adieraztea.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Egoera bera taldean egiteaz gero iharduera hobeto ulertuko du, gainerako haurrak imitatu egingo dituelako.
- Iharduera gelako edo jantokiko gune jakin batean egingo da beti, egoeraz identifika dezan.
- Laguntza indibiduala, bi gauzaren artean aukeratzen irakasteko: Cola-Caoaz edo Cola-Caorik gabe.
- Esnearen, Cola-Caoaren, gaileren etab.en ontziak txartel edo liburu pertsonaltzat erabili, zer egin behar duten identifikatzeko, zer nahi duen seinalatzeko...
- Elikagaien argazkiak erabili: esnea, edalontzia, Cola-Cao... identifika eta seinalatu ditzan.

### 3. KOMUNA. Komunera joatea

Iharduera honen helbua autonomia, higiene eta independentzia pertsonaleko oinarrizko ohiturak ikastea eta hartzea da. Ikaskuntza horiek gutxinaka-gutxinaka hartzen eta finkatzen dira, gizarteratze-egoeretan, hots, gainerakoekin batera eginaz, finkatu ere. Horiek bereganatzen dituztenean, hainbat sentimendu pizten da haurengan: segurtasun-handiagoa izaten dute, beraien burua eta ingurunea hobeto kontrolatzen dituzte, nortasun pertsonala areagotu eta gizarte-arauak eta trebetasunak garatu egiten dituzte. Iharduera horien bidez, premia biologikoa eta gizarte-ekintza elkarri lotzeko aukera eskaintzen zaie, premia hori gainerakoei adierazten diete, gainerakoen onespena jasotzen dute, taldeko arauetan parte-hartzen dute etab.

#### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Komuneko egoerak argazki edo marrazkietan identifikatzen irakatsiko diogu. Egoera horien adierazgarri izango diren benetako objektuak ere erabil daitezke, hala nola, pixontziak, panpinak...
- Hitzez edo ezagutzen duen keinuren baten bidez eskatzen irakastea.
- Komunera joateko eskatzen duenean, hobeto esaten irakatsi, keinuen edo hitzen bidez nahiz lekua, argazkia edo marrazkia erakutsiz.
- Bukatu duela esateko estrategiak.
- Espazioan orientatzeko antolamendu egokia, gelatik komunera ibilbidea, jolastotitrik komunera etab. ikas ditzan.
- Jazteko eta garbitzeko ohiturak.

#### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Horman edo lurrean ibilbidea adieraziko dioten koloretako zerrendak erabili, komunera bidea ezagutzen duela segurtatzeko.
- Komunaren marrazkia edo argazkia erabili, nora joan nahi duen adierazteko.
- Komuneko sekuentziei jarraitzeko ikusizko gakoak: prakak jeistea, eseritzea, pixa edo kaka egitea, kateari tira egitea etab.
- Jarraitu beharreko prozesua edo urratsak adieraziko dizkioten argazkiak erabili.
- Gelako txoko batean komuneko hainbat jolas ezarri: pixontzia, panpinak, belakiak..., horiekin komuneko egoeren simulazioak egin ditzan.



## 4. TALDE HANDIETAN LAN EGITEA. Zirkulua

Iharduera honetan, hainbeste eta hainbeste gizarte-elkarreragineko egoera sortzen da, gertakariak, sentimenduak eta emozioak adierazten baitira eta gainerakoek gauzez zer esaten eta pentsatzen duten ulertu behar baita. Parte-hartze indibiduala burutzen da, baina beti taldearen barruan eta gainerakoei lotuta. Talde handietako elkarreragin-une horiek esanguratsuak izaten dira erabat, hainbat iharduera egiten direla. Honakoak, besteak beste:

- Elkar topatzeko eta hartzeko unea da, egunari hasiera emango dion unea.
- Aurreko egunean zer egin den adierazten eta entzuten da.
- Bestelako esperientziak entzuten eta elkar-banatzen dira.
- Ipuinak kontatzen eta entzuten dira, abestiak abesten eta ipuinak eszenifikatzen dira.
- Eguna eta gelan zer egin behar den antolatzen da.
- Hitzeko adierazpenen bidez iharduerarik gehienetan parte hartzen da.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Arreta, arreta-aldiak arian-arian handituz.
- Taldeari planteatutako egoeren ulermena, ulertzen duela eta ihardueran galduta ez dabilela segurtatuz.
- Talde-ihardueretan parte-hartzea, nahiz eta ihardueran denbora guztia ez eman edo hitzekoa ez den eraren baten jarraitu.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Ihardueraren iraupena egokitu egin behar da, luzeegiak izan ez daitezen.
- Haur askorentzat hitzeko ulermena eta adierazpena zailak direnez, tartean hitzekoak ez diren iharduerak sartzea gomendatzen da, jolasak, mugimenezkoak, mimika, marrazkiak...
- Talde-iharduerak eta arreta indibiduala konbinatu.
- Kontaerekin batera, esaten ari zaienari buruzko informazioa emango dien ikusmenezko adierazleak erabili.
- Hitzeko iharduerekin batera kantonak erabili, mimika eta keinu eta guzti.
- Objektuak manipulatzeko duten iharduerak proposatu, objektuak elkarri pasaerazi, taldeari erakustarazi...
- "Galdu" egin delako arretarik ezin duenean jarri, galderak edo adierazpenak egingo zaizkio.
- Ihardueran zehar bere izena ozenki esan, entzun eta adi egon dadin.
- Taldean parte hartuarazi: laminak irakatsiz, laminetan marrazkiak seinalatuz...
- Taldeko gainerakoei haur horri gauzak nola eskatu edo nola zuzendu irakatsiko zaie.
- "Zerrenda" bat egin, talde handian zer gauza egin dezakeen, zer esan eta nola erantzun dezakeen... jasoko dituen eta irakasleek horrelako egoeretan erabiliko dutena.

## 5. JOLASGARAIAN

Jolasgaraian jolas librea eta bat-batekoa garatzen dute hurrek, espazio zabal batean garatu ere, oro har ikastetxeko jolastokian, hainbat adineko ikasleak batera egokitzen direla bertan. Jolas libreak, irudimenezkoak eta talde txikietan parte hartzekoak izaten dira batzuek; jolas dinamikoak, arauak dituztenak eta talde handiagoetan parte hartzeko jolas antolatuak beste batzuek.... Jolasgaraian jolastokian egiten diren jolasak eta iharduerak gizarte-harremanak garatzen dituzte, txanda hartu behar delako, talde-mailako lehen jarraipideak eta arauak hartzen direlako etab. Garapen psikomotrizia, espazioaren eta denboraren inguruko nozioen finkapena, gorputzaren eta espazioaren gaineko kontrola etab. ere sustatzen dira. Jolas-iharduera horiek gertatzeaz dagoenari aurre-hartzeko jarraipideak hartzen ere laguntzen dute: jolasgaraiaren aurretik eta ondoren zer egiten den, jolasgaraiaren ondoren, iharduera hori bukatu dela adierazten duen txirrina edo musika ezagutzea, norbait izkutatzen denean zer gertatzen den etab.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Jolastokiko espazio handia ezagutzea eta egokitzea.
- Talde-jolas errazetan gainerakoekin parte hartzen laguntzea.
- Elkarreragineko jolasak bi edo hiru hurrekin, heldu batekin eta objektu bitartekari batekin egiten hastea. Adib.: hurrekin batera elkarri pilota bat botatzen eta itzultzen ibiltzea.
- Ikas ditzakeen jolasen zerrenda egitea, taldean parte hartzekoak direnak eta ez direnak sartuta, eta haurrari irakatsi, adibidez: pilota botatzen, sokari eragiten, trizikloz ibiltzen, hondarraz pastelak egiten etab.
- Ikastetxean dauden jolasak erabiltzen irakatsi: txirrista, hondarra, zabua, din-dana, trizikloa etab.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Nola jolastu irakatsiko zaio, beste haur batekin jolasean ari dela.
- Gakoak etengabe erabili jolasgaraia noiz hasten eta bukatzen den aurretiaz jakin dezan, Adibidez: musika, txirrina etab.
- Jolas-egoeretan bitartekari arituko den norbaiten laguntza: helduren batena, ikasle zaharragoena edo ikaskideena.
- Jolas-iharduera jakin batzuetan laguntza fisikoa ere beharko du agian.
- Haur gehiagorekin batera egotearen ondoriozko modelaketa, imitazioa etab.

## 6. ARTISTAREN TXOKOA

Artistaren txokoak sormena, adierazpen artistikoa eta irudimena garatzea du helburu. Haurrak, gainera, elementu eta material-mota anitzekin jartzen dira harremanetan, ondorengoak lortzeko jarri ere :

- \* hainbat elementu eta materialekin esperimentatzeko
- \* manipulatzeko
- \* sormen pertsonala garatzeko
- \* sortzen dituzten materialak eta lanak gainerakoekin elkar-banatzeko
- \* sormen pertsonalaren bidez gozatzeko

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Hainbat material eta objektu era funtzionalean erabiltzea (buztina, pintura, plastilina, guraizeak, papera, eraikuntzak...).
- Ikusmen/esku koordinazioko eta motrizitate fineko trebetasunak, elementuak eta materialak erabiltzeko gai izan dadin.
- Kontzeptuzko edukinak hartzea: koloreak, tamainak, objektuak, formak, materialen sailkapena etab.
- Zenbait jarrera hartzea, horien bidez materialak elkar-banatzeko, beste haurrei laguntzeko, besteen laguntza hartzeko, egin dituenekin gozatzeko...
- Komunikazio-estrategiak hartzea, horien bidez laguntza eskatzeko, zer duen gogoko eta zer ez adierazteko, noiz bukatu duen esateko, sinboloak edo marrazkiak ekintza jakinei lotzeko....
- Lanak egiten gozatzea eta horietaz harro egotea.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Argazki, marrazki edo sinboloren bat erabili, artistaren txokoa gelan bereizita gera dadin.
- Argazkiak edo txartelak erabili, hainbat zeregin eta material errazago bereiz ditzan: gureizetan ebakitzeko direla adierazi, pintzelak pintatzeko, lekeda itsasteko...
- Hasteko iharduera errazak eta sekuentzia gutxikoak egin: eraikuntza, manipulazioa, azalera errazen bat hainbat materialez bete....
- Materialak arian-arian aurkeztu eta horiek erabiltzen ikasteko behar adina denbora eman.

## 7. IRAKURTZEKO-IDAIZTEKO TXOKOA

Haurrek lengoaiarekin eta adierazpenarekin zerikusia duten hainbat material izaten dute eskura, sinbolo grafiko batzuen bidez ideiak edo kontzeptuak adieraztea helburu izaki. Honakoak erabil daitezke: marrazkiak, irudiak, laminak, ipuin-liburuak, ontzi desberdinen errotuluak daramatzaten kartulinak, letrak, inprenta, idazmen-aurreko materialak, kartulinak, arkatzak, errotuladoreak... Haurrak kode grafikoak ezagutzen hastea eta interpretatzeko eta gainerakoei kode horien bidez zerbait ulertarazteko gai direla ikustea nahi dugu. Zerbait adierazi nahi dugunean kode grafikoak ere erabil ditzakegula ulertu behar dute, hala nola, marrazkiak, koloreak, letrak etab. Kode horien erabilera jolasaren bidez eragitea da kontua, eta idatzizko adierazpena komunikatzeko garrantzitsua dela ikusaraztea.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Kode grafikoen erabilera eta balioa ezagutzea: irudiak, letrak, koloreak, argazkiak, sinboloak, hitzak...
- Sinboloak eta irudiak egoera edo ekintza jakinei lotuaz ezagutzea eta identifikatzea.
- Irakurketaren eta idazketaren inguruko oinarrizko ohiturak hartzea: ezkerretik eskuinerako norabideari jarraituz, grafomotrizitateaz eta idazketa-tresnak -arkatza, pintura, inprenta...- erabiliz sinboloak eta grafikoak ezagutzea.
- Liburuak eta ipuinak erabiltzea, eta horietako irudiak eta marrazkiak ezagutu eta interpretatzea.
- Idazketa sinboloak eta grafikoak eguneroko ihardueretan zein funtzio duten ikastea: tutorearen eta gurasoen artean mezuak irakurtzeko, zer behar duen adierazteko, gogoko dituenak idatziz azaltzeko (abestiak, mezuak etab.), egin dituenak ondo baloratzeko.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Txoko bakoitzean marrazki edo grafiko finko bana erabili, haurrak identifika ditzan.
- Iharduerak sekuentziatu, errazagoa eginez arreta jartzeko gai izan dadin.
- Guztien arteko arreta-formatoak: laminak haurrarekin batera begiratu eta seinalatzea, beste haurren batek seinalatzen dionari adi egotea, izendatuko zaizkion marrazkiei begiratzea.... Liburuak eta laminak elkarreragina sortzeko bidea dira.
- Elikagaien, jolasen, gelakideen, familiaren, etxearen... inguruko argazki edo marrazkidun laminak.
- Agenda edo liburu pertsonalizatua, haurarentzat esanguratsuak diren gauzen marrazkiak edo argazkiak bertan sartzeko. "Laneko liburutzat" ere erabil daiteke.

## 8. JOLAS SINBOLIKOEN TXOKOA

Haurrek hurbilen duten errealitatea irudikatzen duten objektuak eta jolasak dituzte bertan, horien bidez errealitatea eta barne-mundua simulatu, imajinatu eta irudikatzeko. Hainbat material ezarriko dira: sukaldeak, platerak, oheak, sardeskak, edalontziak eta katiluak, dendak, saltzeko eta erosteko produktuak, panpinak, mozorroak, trajeak, oihalak etab. Horien bidez eguneroko egoerak imajinatuko dituzte edo beraien barne-munduko gertakari esanguratsuak imitatuko eta irudikatuko. Honakoak egin ditzakete bertan:

- \* Errealitateko hainbat rol garatu jolas-egoeren bidez, errealitatea eta pertsonen arteko harremanak hobeto uler ditzaten.
- \* Beste baten lekuan jarri eta hura imitatu eta irudikatu: ama, sendagilea, dendaria etab.
- \* Afektibotasunetik hurbil dituen egoerak irudikatu eta horietako arazoak konpondu.
- \* Errealitatea simulatu eta jolasteko gauzei bestelako ezaugarriak eman sinbolizaziora iristeko.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Gainerako haurrengan ikusten dituen jolas-ekintza erraz-errazak imitatzea.
- Txoko horretan dauden jostailuak eta objektuak ezagutzea.
- Beste haurrekin egotea, zer egiten duten arretaz begiratzen eta, ahal duten neurrian, parte hartzea.
- Jolaseko eszenak eta egoerak errealitatean ere gertatzen direla ikustea.
- Gauzen erabilera funtzionala, koloreak, sailkapenak... ikastea.
- Hainbat gauza eta jostailu manipulatzeko, errealitatea imitatzea, ekintzak behatu eta egitea, hainbat jolasen artean aukeratzeko gai izatea.
- Zerbait eskatzeko egoeretan jarri, eta horretako komunikazio-estrategiak garatzea.
- Gainerakoekin elkarreragitea, besteen ekimenei erantzuten irakatsiz.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Haurraren eta jolas-egoeren arteko "bitartekari" lana egingo duen norbait. Batetik, irakaslearen laguntza har dezake: jolasa antolatzen, haurrekin elkarreragiten eta nola jolastu irakasten, bestelako trebetasunetan egin ohi den bezala irakatsi ere.
- Bestetik, haurren laguntza har dezake: eredutzat izango ditu eta zein jolasetan arituko den ondoen ere irakatsi dakieke.
- Egoera errezak aukeratu, sekuentzia gutxi eta interesatzen zaizkion objektuak dituztenak: jaten eman, lo egin, pixa egin, ireki eta itxi etab.
- Txoko horretan noiz egon behar duen adieraziko dion ikusizko gakoren bat erabili.
- Objektuak ezagutu eta nola erabiltzen diren ikasteko behar beste denbora eman.
- Jolas sinbolikoetako egoerak oso konplexuak izan daitezke haurarentzat. Beraz, helburua ez da inoiz ahaztu behar. Gustora ibili behar du, nola jolas egiten duten behatuko da, jolasen bat eskatuko du... Iharduera nolabaiteko malgutasunez planifikatu eta ingurunea egituratu egin behar da, zer egin behar duen eta nola egin behar duen ikas dezan.

## 9. KOGNIZIO TXOKOA

Iharduera indibidualizatuagoak egin daitezke bertan eta haur bakoitzaren aurretiazko erritmoaren eta ezagupenen arabera antolatu. Txoko horretan, indargarri indibidualak eta berriazko ikaskuntzetarako laguntzak errazago planteatu daitezke. Material hauek erabili ohi dira: puzzle-ak, ahokatzekoak, logikazko blokeak, asoziazio-multzoak, tamainu edo lodiera sailak eta objektuen, argazkien, txartelen edo marrazkien sailkapenak. Materialak berak argi erakusten du zer egin behar den, egituratuta baitago. Informazio horrek, haur autistekin lan egiteko garrantzia handikoa izaki, zer eskatuko zaien eta zer egin behar duten aurretiaz eta erraz ikusaraziko die. Hauek dira ohiko iharduerak:

- \* Hainbat objektu eta material, egituratuak daudenak eta ez daudenak, manipulatzeko.
- \* Denborari, espazioari, kantitateari eta neurriari lotutako oinarriko kontzeptuak ikastea.
- \* Objektuak tamainaren, kolorearen, kantitatearen eta erabileraren arabera sailkatzea.
- \* Hiztegia eta lengoia handitzea eta pentsaera logikoa ikasten hastea.
- \* Zeregin jakin bat egiteko arreta eta kontzentrazio ohiturak garatzea.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Egin behar dituen zereginetikiko arreta eta kontzentrazio ohiturak.
- Oinarriko ohiturak eta trebetasunak hartzea: arreta, ahokadurak, esku-zehaztasuna, espazioaren eta denboraren pertzepzioa etab.
- Koloreen, formen, pertsonen, argazkien eta aurpegiko espresioen asoziazioa.
- Egoera horietan zein iharduera eskatzen zaion ulertzea.
- Zereginak hasten eta bukatzen ikastea.
- Komunikazio-estrategiak, noiz bukatu behar duen, laguntza noiz behar duen, pieza bat noiz falta zaion, zerbait noiz egin duen ondo edo noiz ez dakien egiten etab. adieraz dezan.
- Ondo egindako lanaz jabetzea eta horren aurrean izaten den atsegina.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Une horretan egin behar duenari buruzko behar beste informazio eskaintzea, eta argibideak ondo ulertzeko moduan ematea.
- Hitzeko lengoaiarekin batera, ikusmen eta keinu bidezko laguntzak erabiltzea.
- Ikaskideren batek iradokizunak eta laguntzak eman diezazkioke, eredutzat izan ditzan.
- Iharduerako materiala bere gaitasunei egokituta eta arian-arian aurkeztea.
- Zeregin konplexuen sekuentziak argi izatea, eta urrats bakoitza arian-arian aurkeztea. Adi egon behar da, zereginetan galduta dabilenean eta zailegia egiten zaionean laguntza emateko.
- Zereginen bat ondo burutu duenean, bukaeran indargarri positiboak emango zaizkio, atsegin eta onespen adierazpenak eginez, edo keinuak edo sinboloak erabiliz.

## 10. PSIKOMOTRIZITATE TXOKOA

Psikomotrizitate-aretoan edo gelan iharduera horietarako ezarritako txokoa, hurrek, gorputzaren mugimena eta zentzumena garatuz, inguruko mundua ezagutu eta kanpoko munduan sartzeko aukera izaten dute, mundu hori ezagutuaz beraien interesak handitzeko. Zentzumen eta mugimen-esperientzien bidez, beraien gorputz-eskema egituratu eta finkatu egiten dute, horrela beraien buruak benetan ezagutzea lortzen dutela. Jolas psikomotoreak hurbilen duten mundua ezagutzen lagunduko die, eta horretaz gain, beraien buruak eta besteak ezagutzen eta beraien ekintzak ingurunearen arabera eta gainerakoei begira planifikatzen ikasten. Psikomotrizitate-iharduerean unek ezin hobeak dira hurrek elkarren artean harremanak izan ditzaten, espazioa menperatzen ikasi eta lengoia eta gorputzaren adierazkortasuna askatasunean gara ditzaten.

### ***Zer landu behar da ikaslearekin?***

- Espazioa ezagutzea eta bertan mugitzea.
- Mugimen eta koordinazio-trebetasunak garatzea, espazioan antolatze bidea eman diezaioten.
- Koalitate desberdinetako objektuak manipulatzeko eta aztertzea.
- Gorputza ezagutzea eta espazioari eta denborari buruzko oinarritzko nozioak hartzea.
- Komunikazio-estrategiak, horien bidez objektuen ezaugarriak, espazioaren baldintzak, laguntza behar duen ala ez etab. adierazteko.
- Gorputz-eskemaz eta espazioan moldatzen eta kontrolatzearen, eta horren aurrean izaten den atsegina.
- Lekuz aldatzeko mugimen-jolasak, orekakoak, balantzaka ibiltzekoak, objektu-jaurtiketakoak, altuera desberdinak kontrolatzekoak etab.

### ***Zer nolako laguntzak behar ditu?***

- Psikomotrizitate-gunea behar bezala antolatzea, handiegia eta behar adina egokitu gabeak izan daitezkeen espazioetan galdu ez dadin.
- Une horretan egin behar duenari buruzko behar beste informazio eskaintzea, eta argibideak ondo ulertzeko moduan ematea.
- Hitzeko lengoiairekin batera, ikusmen eta keinu bidezko laguntzak erabiltzea, espazio desberdinetan azalpenak ematen zaizkiola.
- Ikaskideren batek iradokizunak eta laguntzak eman diezazkioke, eredutzat izan ditzan.
- Koordinazio eta orekadun zenbait mugimen-iharduera zailak egingo zaizkio agian. Halakoetan, laguntza fisikoa emango zaio.
- Adi egon, eta zereginetan galduta dabilenean eta espazioan orientatu ezinik dagoenean, lagundu egingo zaio.
- Zereginen bat ondo burutu duenean, bukaeran indargarri positiboak emango zaizkio, atsegin eta onespen adierazpenak eginez, edo keinuak edo sinboloak erabiliz.

## V. KOMUNIKAZIOA BEHATZEKO TRESNAK

Eskola-esparrua haur bakoitzaren komunikazio-gaitasunak eta erak behatzeko gune ezin hobea da, bertan gizarteratze eta komunikazio-aukera ugari eskaintzen duen hainbat topagune egokitzen baita. Ildo honetan, ikasleen hezkuntza-premiei erantzuna emateaz gain, komunikazio-esparruko nahasteren bat duten haur txikiek komunikatzeko burutzen dituzten lehen urratsak eta saioak behatzeko hainbat aukera ere gertatzen da.

Lehen garapen-urteetan, komunikazio-nahasteren bat izanez gero, ingurunearekiko ezartzen den komunikaziorik gehiena ez da hitzezko kode hutsaz gauzatzen, hitzezkoa ez den lengoaiaz baizik, hau da, keinuak, begirada, adierazpenak etab. erabiliz. Beraz, behaketak egitea garrantzitsua denez, behaketa-tresna erraz eta funtzionalak proposatuko ditugu, haur-hezkuntzako irakasleei haur autisten edo bestelako komunikazio-nahasteak dituztenen komunikazio-baliabideei buruzko informazioa lortzeko bidea emango dietenak.

Gela, jolasgaraiak, irteerak, pasiloak... haurrak nola komunikatzen diren behatzeko leku eta une egokiak dira. Behaketa horiek jasotzeko modua arina, suspergarria eta argia izatea nahi dugu, eta emaitzen arabera landuko eta planifikatuko ditugu iharduerarik egokienak.

Jarraian deskribatuko ditugun bi eskalak erabiltzea proposatzen dugu:

- 1- Haurtzaroko komunikazioa eta gizarte-gaitasunak behatzeko eskala .
- 2- Haur-autismoa ebaluatzeko galde-sorta. CARS



## HAUR-HEZKUNTZAN KOMUNIKAZIOA BEHATZEKO ESKALA

Mc Shane (1980), Donellan eta besteen (1984) eskalen egokitzapena, Bizkaia eta Arabako GNO Programaren arduradun-taldeak egina.

Aurkezten den eskala Mc Shane (1980), Donellan eta besteek (1984) landutako komunikazio-funtzio pragmatikoen eskalen egokitzapena da, haur autisten edo komunikazioaren garapenean eragina duten bestelako arazodunen komunikazio-gaitasunak ebaluatzea duela helburu. Profesionalek hezkuntza-ihardueraren eskola-esparru arruntean erraz erabiltzeko tresna izan dezaten egin dugu egokitzapena.

Komunikazio eta gizarte-gaitasunetan atzerapen handia erakusten duten haurrak nola komunikatzen diren behatzeko asmoz dago egina, atzerapen horren sorburuak garapenaren nahaste orokortuak, autismoa edo komunikazioaren garapenari eragiten dioten edonolako atzerapen orokortuak izaten baitira.

### ESKALA NOLA ERABILI

Komunikazioak bi alderdi hartzen ditu: hitzezkoak batetik, hau da, hitzak, esaldiak, ahoskapenak, soinuak etab. eta hitzezkoak ez direnak bestetik, hots, keinuak, begiradak, hurbilketa fisikoak, iragarpenak etab. Gainerakoekin komunikatzeko eta ulertzeko arazoak dituzten haurrek bi adierazpen-erak erabiltzen dituzte zenbaitetan edo, bestela, hitzezkoak ez diren alderdi hutsen bidez bakarrik komunikatzen dira, bigarrena izanik nagusi arazoak daudenean. Hori dela eta, garrantzitsua da haur bakoitzaren komunikazio-gaitasunak ezagutzea, ondoen nola komunikatzen den jakitea eta komunikazio-funtzio guztiak behatzea. Azken horretarako, bai hitzezkoak ez diren alderdiak (keinua, begiradak, seinaleak, jokabideak, unean-uneko testuinguruan zer gertatzen den etab.) bai hitzezkoak direnak (ahoskapenak, ekolaliak, hitzak, esaldiak etab.) hartu behar dira kontuan. Aurreko alderdiak behatuz eta ebaluatuz gero, batetik, eskolako lana planifikatzeko eta, bestetik, gizarte-ingurunearekiko komunikazioa eta ulermena areagotzeko egin beharreko curriculum-egokitzapenak burutzeko jarraipideak eskuratuko ditugu.

Eskala horien bidez egingo diren behaketetan, zer egiteko gai den eta zer ezin duen egin jaso behar da baina, batik bat, *nola* komunikatzen den eta *zer nolako estrategiak* erabiltzen dituen ikusi beharko da, horiek baitira hezkuntza-zereginaren planifikazioarako garrantzitsuenak. Xehetasun horiek dagokien zutabearen idatziko dira. Hona hemen zenbait adibide:

- nagusiki hitzezkoa ez den eran komunikatzen bada (1. Zutabea)
- nola egiten duen: begiraden bidez, adierazpenez, heldua erabiliz etab.
- hitzez besterik ez bada komunikatzen (2. Zutabea)
- zein egoeratan komunikatzen den ondoen eta nola egiten duen
- norekin eta noiz elkarreragiten duen ondoen
- elkarreragina errazago lortzeko zein objektu duen nahiago eta erabiltzen duen
- zein leku du gogokoen: gela, laguntza-gela, jantokia etab.



KOMUNIKAZIO-FUNTZIOAK	HITZEZKOA EZ den komunikazioa	HITZEZKO komunikazioa
<div data-bbox="204 315 746 405" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> <b>IMITATZEA</b>  honakoak imitatzeko gai da </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• keinu errazak .....</li> <li>• beste haurrengan edo helduengan ikusten dituen ekintzak .....</li> <li>• entzun berri dituen soinuak edo hitzak .....</li> <li>• hitzak edo esaldiak, entzun eta gerora.....</li> </ul>		
<div data-bbox="212 795 746 913" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> <b>IZENDATZEA</b>  zer eskatzen zaion ulertzen duenean, ahoskatuz, seinalatuz edo adieraziz </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• objektuak.....</li> <li>• pertsonak.....</li> <li>• lekuak .....</li> <li>• ekintzak.....</li> <li>• objektuen, pertsonen, lekuen eta ekintzen argazkiak.....</li> <li>• objektuen, pertsonen, lekuen eta ekintzen argazkiak.....</li> </ul>		
<div data-bbox="212 1523 746 1619" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> <b>ESKARIEI ERANTZUTEA</b>  beste batzuen eskariei erantzuteko gai da </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• objektuak ematen ditu, hala eskatzen zaionean.....</li> <li>• ekintza errazak egiten ditu, hala eskatzen zaionean.....</li> <li>• bestelakoak .....</li> </ul>		

KOMUNIKAZIO-FUNTZIOAK	HITZEZKOA EZ den komunikazioa	HITZEZKO komunikazioa
<p style="text-align: center;"><b>ESKARIAK EGITEA</b> zer nahi duen esaten du edo norbaiti zerbait eskatzeko zuzentzen zaio</p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• janaria .....</li> <li>• objektuak.....</li> <li>• iharduera jakin bat egiteko laguntza (ireki-itxi...) .....</li> <li>• elkarreragina jolasean (jaten eman, lo egin...)</li> <li>• ekintza (nonbaitera joan, kalera atera...) .....</li> <li>• afektua.....</li> </ul>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p style="text-align: center;"><b>GAITZESPENA ADIERAZTEA</b> gaitzespen-jarrerak erakusten ditu.</p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• objektu jakin baten aurrean.....</li> <li>• norbaiten aurrean.....</li> <li>• ohiko egoera baten aurrean.....</li> <li>• iharduera jakin batzuen aurrean.....</li> <li>• aldaketan eta berrikuntzen aurrean.....</li> </ul>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>

KOMUNIKAZIO-FUNTZIOAK	HITZEZKOA EZ den komunikazioa	HITZEZKO komunikazioa
<div data-bbox="201 344 751 439" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> <b>ERANTZUTEA</b>            honakoei erantzuteko gai da:         </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ezagunei - izenaz deitzen diotenean .....</li>   <li>- galdera errazak egiten dizkiotenean: non, nork, .....</li>   <li>• ezezagunei - izenaz deitzen diotenean .....</li>   <li>- galdera errazak egiten dizkiotenean: non, nork .....</li> </ul>		
<div data-bbox="201 936 751 1030" style="border: 1px dashed black; padding: 5px; text-align: center;"> <b>GALDETZEA</b>            informazioa eskatzeko gai da         </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• nor da, nor dator, nork dauka? .....</li>   <li>• non dago (behar duen zerbait)? .....</li>   <li>• bestelakoak.....</li> </ul>		
<div data-bbox="201 1332 751 1426" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> <b>EMOZIOAK AZALTZEA</b>            nolabaiteko emozioak azaltzen ditu         </div> <ul style="list-style-type: none"> <li>• poztasuna.....</li>   <li>• tristura .....</li>   <li>• beldurra.....</li>   <li>• atsekabea.....</li>   <li>• harridura.....</li> </ul>		

## HAUR-AUTISMOA BALORATZEKO ESKALA (CARS)

Haur-autismoa baloratzeko eskalaren bidez (CARS), zailtasun larriak dituzten haurren hitzezko nahiz hitzezkoak ez diren komunikazio-jokabideen zuzeneko behaketak egin daitezke. Eskalaren helburua autismo-maila baloratzea da, baina horretaz gain, batetik, komunikazio-esparruko zailtasunen, estiloen eta gaitasunen eta, bestetik, gaitasunen eta objektuekin eta gainerako pertsonekin harremanak izateko eraren ponderazioa egiteko bidea ere ematen du.

Adierazle batzuetatik abiatuta, haurraren jokaeraren inguruko behaketak egingo dira, haurra mugitzen den esparru arruntean eta ohiko inguruneetan egin ere: ikastetxean, gelan eta jolastokiko, jolasgaraiko eta jolaseko uneetan etab

Honako alderdiok behatuko dira:

### 1. Pertsonetikiko harremanak

haurra egoera anitzetan nola aritzen den baloratzea. Egoerak egituratuak nahiz egituratu gabek izango dira, beti ere besteekiko elkarreragina dagoela

.....  
.....  
.....

### 2. Imitazioa

haurrak nola imitatzen duen baloratzea, bai hitzez eta baita hitzezkoa ez den eran ere

.....  
.....  
.....

### 3. Erantzun emozionala

haurrak zer nolako erreakzioak dituen baloratzea, bai egoera edo estimulu atseginen aurrean eta baita atseginak ez direnen aurrean ere

.....  
.....  
.....

#### 4. Gorputzaren erabilera

koordinazioa eta gorputz-mugimenduen egokitzapena baloratzea (estereotipiak)

.....  
.....  
.....

#### 5. Objektuen erabilera

haurrak jostailuekiko eta bestelako objektuekiko zer nolako interesa duen eta nola erabiltzen dituen baloratzea

.....  
.....  
.....

#### 6. Aldaketei egokitzea

errutinak aldatzeko edo iharduera batetik bestera aldatzeko zailtasunak baloratzea

.....  
.....  
.....

#### 7. Ikusmen-erantzuna

ikusmenezko arreta-ereduak baloratzea, eta baita haurrak objektuei edo materialei begiratzeko eskatzen zaionean nola erantzuten duen ere

.....  
.....  
.....

#### 8. Entzumen-erantzuna

haurrak giza ahotsen aurrean eta bestelako soinuen aurrean zer nolako erreakzioak dituen baloratzea

.....  
.....  
.....



**9. Dastamenaren, usaimenaren eta ukimenaren erantzuna eta erabilera**  
hurbileko hainbat zentzumen-estimuluren aurrean zer nolako erreakzioak dituen baloratzea

.....  
.....  
.....

**10. Barne-herstura eta beldurrak**  
ingurune-aldaketen, hurbiltasun fisikoaren....aurrean, barne-herstura, negarrak, oihuak eta kontrolik gabeko barreak baloratzea

.....  
.....  
.....

**11. Hitzezko komunikazioa**  
berez egindako hitzezko adierazpenak, hitzen edo esaldien imitazioa, ekolalia.... baloratzea

.....  
.....  
.....

**12. Hitzezkoa ez den komunikazioa**  
adierazpena eta ulermena baloratzea, nahi duena lortzeko erabiltzen dituen keinuak eta bideak aztertuz, zerbait kentzen zaionean zer nolako erreakzioak dituen...

.....  
.....  
.....

**13. Iharduera-maila**  
bere iharduera nola kontrolatzen duen baloratzea, espazio irekietan dagoenean, geldi egon behar duenean...

.....  
.....  
.....

**14. Erantzun intelektualaren maila eta sendotasuna**  
zeregin kognitiboei emandako konponbideak, hainbat alderdi eta gaitasunetan duen errendimendua...

.....

.....

.....

## **VI. CURRICULUM-EGOKITZAPENA HAUR-HEZKUNTZAN: Garapenaren Nahaste Orokortua duen IKASLE BAT**

Ondoren deskribatuko dugun kasuan haur-gelako benetako egoera bat hartu dugu aztergai, Haur-Hezkuntzan ohikoa izaten dena: gela arruntean integratuta dauden garapen-nahaste larridun haurrena, hain zuen. Honakoak azalduko ditugu adibidetzat: ikaslearen egoera eta hezkuntza-premiak baloratzeko emandako urratsak eta ikaslearentzat eta ikaslearen taldearentzat proposatutako curriculum-egokitzapenaren inguruan hartutako erabakiak.

Lau urte eta erdiko haurra dugu hizpide, lau urteko haurrentzako gelan eskolatuta dagoena. Haurrarekin lan egiten duten irakasleek eskolatzearen hasiera-hasieratik nabaritu dizkiote zailtasunak. Zailtasun horiek ez diote gelan integratzea galerazten baina, hala ere, handiak dira benetan, eta komunikazioan eta pertsonarteko harremanetan agertzen dira batik bat. Irakasleek egingo dituzten behaketez gain, egoki iritzi diote balorazio sakonagoa egiteari ere, haurrak zer nolako premiak dituen zehaztu eta komunikazioaren alderdiak zentzu zabalean landuko dituzten lehentasunak eta hezkuntza-jarraipideak finkatu ahal izateko.

Irakasleek, eskualdeko Talde Multiprofesionalarekin harremanetan jarri ondoren, urrats hauek ematea erabaki dute:

1. Ikastetxean, bai ikasgelan bai bestelako guneeetan: jolastokian, jantokian, patioan etab.en, egin diren hasierako behaketak eta balorazioak jasotzea.
2. TMn ebaluazioa, irakasleek emandako informazioa kontuan hartuta.
3. Haurrak zein hezkuntza-premia azaltzen duen definitzea.
4. Hezkuntza-erantzun egokia emateko egin behar diren metodologi egokitzapenak eta baliabideak finkatzea.

Ikastetxearen eskualdeko PATeko Talde Multiprofesionalak burutu dituen behaketez eta ikastetxeko irakasleek jasotako informazio eta behaketen ondorioz, balorazio diagnostikoa egin eta ikasleari zuzendutako hezkuntza-ihardueraren plana finkatu ahal izan dira.

Hona hemen laburbilduta:

## BALORAZIO DIAGNOSTIKOA:

Hiru atal ditugu orain aipagai: komunikazioa, harremanak eta haurren jokabide estereotipatuak, ondorengo ezaugarriok direla horien inguruan aipatzekoak:

- Haurren zailtasunik handienak komunikazio-garapenean eta gainerakoekiko harremanetan kokatzen direla ondorioztatzen da. Haurren arazoek ez dute zerikusirik gaitasun intelektualaz, oraindik normala eta adinari dagokiona baita. Dena dela, eguneroko egoerak, objektuak eta pertsonak lotu behar dituenean huts egiten du, hau da, gizarte-kognizioko gaitasunak erabili behar dituenean.
- Badaki objektuak zertarako erabiltzen diren eta baita aparte erabiltzen ere, baina ez da guztiak batera erabili eta zentzudun ekintza sinbolikorik egiteko gai.
- Hitzezko adierazpenik ez du berez egiten, eta ez zaie gainerakoei inola ere zuzentzen, hala eskatzen zaionean bakarrik ezartzen duela komunikazioa. Hitzezko komunikazioari dagokionez, bokal hutsak erabiltzen ditu eta lamineetan identifikatutako zenbait hitz izendatzen du, hitz gutxi hala ere. Oro har, hitzen bokalak besterik ez ditu esaten, kontsonanterik erabili gabe. Adibidez: mahaia: “a-i-a”
- Berdinen arteko berezko harremana ez da bere adineko haurrei dagokiena. Berdinen taldeetako iharduerei eta jolasei erreparatzen badie ere, ez da berez horietan sartzeko gai eta isolatzeko joera du, ihardueretan berez parte hartzera iritsi gabe. Zenbaitetan oihutxoak, estereotipiak, hegadak edo hasiera eta bukaeradun iharduerak egiten ditu, baina errepikakorrak eta mekanikoak izaten dira beti.
- Gelako hainbat egoera eta pertsonen eta objektuen zenbait iharduera ulertzen ditu. Ez da berez egoki erreakzionatzeko gai edo ez du jakiten nola egin, baina kanpotik zuzenduz gero edo jarraipideak emanez gero, aurkezten eta eskatzen zaiona onartzeko eta erantzuteko gai izaten da.
- Egindako azterketetan ikusi denez, haurrak gainerakoekin konektatzeko erabiltzen dituen adierazpenen kopurua urrituta dago. Izan ere, oinarri-oinarrizko premietarako edo nahi duen objektuen bat lortzeko bakarrik erabiltzen ditu.
- Ez du egiten duena erakusten, ez du iragartzen, ez du pentsaerarik eta esperientziarik elkar-banatzen. Baina bada talde-iharduerei jarraitzeko

gai, iharduerok oso egituratuta egonez gero eta nolabaiteko gidaritza eskaintzen bazaio.

- Objektuen erabilerari dagokionez, batzuek gogokoago ditu, eta horietaz baliatzen da hainbat iharduera era mekanikoan burutzeko, eguneroko bizimodua betetzeko beharrezko erritual bihurtu baitzaizkio argi eta garbi.
- Bada iharduera partzialak erabiltzeko gai, baina ez ditu orokortzen eta ez da jolas sinbolikoak egitera iristen. Hala eta guztiz ere, hasi da zenbait jostailu instrumentalki erabiltzen. Ondorioz, beste dinamika-mota baten baitan, hots, dinamika parte-hartzaileagoan, sartzeko gai dela esan dezakegu, beti ere helduaren laguntza eta bitartekaritza dituela.

Behaketa horiek guztiak erakusten dutenez, haurren beharrak komunikazioaren eta gizarte-elkarreraginaren esparruan kokatzen dira nagusiki, eta beharrezkoa da gelaren hezkuntza-interbentzioan alderdi horiek konpentsatzea, ikaslearen premiei egokitutako plangintzaren bidez hain zuzen. Beraz, ondorengo orrialdeetan aurkezten den ekintza-plana burutzea erabaki da.

### **Hartu beharreko erabakiak**

1. Ikaslearen hezkuntza-premiarik handienak komunikazioaren eta irudikapenaren esparruan kokatzen dira.
2. Gelaren programazioa aztertu eta gero, ondorengo erabakiak hartu ditugu:
  - Ikaslearekin landu beharreko erreferentzi helburuak eta taldekideenak berberak dira, baina beharrezkoa da komunikazioaren eta irudikapenaren esparruan horietako batzuk aldatzea.
  - Programazioaren antolamendu eta metodologi alderdietan egin beharko dira funtsezko aldaketak.
3. Behar-beharrezkoa deritzogu ikasleari une jakin batzuetan gelako hainbat zeregin egiteko laguntza indibidualizatua emateari.

Aurreko erabakiak honekin batera doan adibidean jasotzen dira.